

Ez da posible

Euskaldunon Egunkaria, 2001-07-18: 3.

EGUNKARIA bide dela izan dut larunbatean gure herrian egin diren bi hilketen berri: Leitzan bertoko Javier Mujika, zinegotzia, eta Leaburun Mikel Uribe, ertzaina, plazan bertan; biak ETAk akabatuak, dirudienez, eta berak horrela erabaki duelako. Krimenak aurrera doaz, kupidarik gabe. Ez zutelako, hilek, berdin pentsatzen! Arrazoin eskergagorik ez da asmatu! Horiek izan ziren gerra piztu zigutenak, harrezkero jarraiki gaituztenak. Orain alderantziz aritzea ez da posible. Nire aitak ez luke sinetsiko, ezta *Hiltzaileak*-eko Nemexio Fernandezek ere. Santuek berdin pentsatzen duten bitartean, euria goitik behera ari duen artean eta euskaldunok, euskaraz! Ez da posible.